

NOGALES LEIZE SAREA



SISTEMA DE LOS NOGALES I - II - UZ-3



Testua eta argazkiak
Joxe Blanco Gómez

UZ-3/ UZ-2 ZEHARKALDIA. Antsola mendia - PAGASARRI (Bizkaia)

Etxetik hurbila
Badago zer ibilia
Hortxe Pagasarri
Ikasteko serio ta umila

UZ-3 sarrera
Nogales sisteman
UZ-2 irteera
Zeharkaldi ederra

Aho txikian geratu da Abel
Gidari trebe baina
Estuegi diño alajaina
Pena, ze bera barik
"txangoa" geratu da goibel

Hiru lagun abiatuak
Sarrerako putzua ta
Lurpera!
Estu-estu baina bizi-bizirik!

Ez da lurpeko sekretua
Eta ez dut esan
Hiru lagunetako bat
Josu da, nire semetsua



UZ-3ko sarrera

Bestea Jon da
Taldeko "jipia"
Buru joango da
Bide lupeztu ta hertsian

Segidan sonako "Diplura"
Hori katazulo estua
Narrasean ibili behar
Santu ta kristo guztiak

Horra "Gours"ak
Espero baino sikuagoak
Berdin egongo al dira
Irteerako katazuloak?

Horiexek baitira
Trabesiaren gakoak
Sifonatuz gero
Zeharkaezinak

Amabirjinaren aretoan
Akabo zabala
Soka finkoa pasa aurretik
Merezitako anoa

Katazulo dioxosozkoak begi-bistan
Siku dirudite hara!
Ekin beharko diegu
Hasi aurretik damutan

Urik ez baina
Estutasun itogarria
Narrasean gogor
Ukondo, belautan eta ipurdia

Luze jotzen ari
Eta sorpresa azkenean
Plisti-plasta ez egiteko
Zenbat komeri

Egunaren argi zurbil hori
Amaia dela iragarri
Abelen irriekin batera
Egin digute ongi etorri

Irteeran lauron argazkia
Lupetza garbitu Errekan
Etxera goaz
Pozik biribilketan

Hurrengo arte Pagasarri
Bueltatuko gara gozagarri
Zure barrunbeak
Beti erakarri

Jardueraren inguruko jakingarriak:
Adarretan sartu barik, ordu t'erdia behar da zeharkaldia egiteko. Honek ez du azaltzen aparteko zailtasunik, estutasunein erreparorik ez izanez gero behintzat (handikoteak eta zabalkoteak erne!) Ez dira menderatu behar progresio bertikaleko teknikak. UZ-3-ko sarrerak 8 metroko putzua dauka, sokarekin instalatuta egoten dena. Dena den, komeni da soka eramatea (15 m) badaezpada, eta gero berreskuratzen UZ-2-tik atera ondoren. Beste bi pasartetan ere, soka finkoak egoten dira. Aipatu soka horretaz gain, bi segurudun mosketoi, arnesa, zortzia, kaskoa eta kopeta argiarekin moldatuko gara. Belaunetan ipintzeko babesek erraztuko digute "narrasaldia". Oso interesgarria espeleion hasteko, arina, formazio ederrekin eta entretenigarria. Hori dela eta, bisita asko jaso izan ditu eta zaborra eta formazio apurtuak topatuko ditugu. ZAIN DEZAGUN BADA. Kontuan hartzeko zera bakararra: kobazulo aktiboa dugu, hau da, lurpeko erreka da eta ondorioz, aro sikutako euririk gabeko egunetan sartzea bidezkoena da, bestela sorpresak suertatu baitaitezke, batez ere irteerako katazuloetan.

***Sarbideak:** Bilbotik Pagasarriara doan pistatik ala Buia aldeko Seberetxe auzunetik.
***Bibliografia eta topografia:** PAGASARRIKO KARSTA - Gaztetxeko Espeleologi Taldea (2001. Bizkaiko Foru Aldundia)
***Bisitari parte hartu zuten:** Abel Arroyo, Jon Garaio, Josu eta Joxe Blancok, 2010eko urriaren 2an.